



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

> Baliabide fisikoak:

Anek, erabiltzen ez duen txoko bat duenez, bertan lan egiteko aprobetxatuko dugu. Maialenek etxean, josteko makina bat soberan duenez, diseinatutako arropak egiteko erabiliko dugu. Hurrengo materialak, taldeekideak bilduko ditugu, ordenagailu bat eta sakeleko telefonoak. Azkenik, beharrezko oihalak eta arropa konfeksionatzeko materialak, Bilboko denda batean jasoko ditugu.



> Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

Lau partaideak oso ondo josteko gaitasuna dugu, baina bakoitzak gure trebetasun bereziak ditugu, proiektua aurrera bikain eramateko.

Oihanez sare sozialetan oso trebea denez, ospe handia baitu, eta horri esker jende asko erakarri dezake.



Maren aldiz, informatikan eta teknologian oso trebea da. Web orriak egiteko gaitasuna duenez, gurea sortu du eta bera arduratuko da aurrera eramaten, beste taldekideen laguntzarekin.

Anek oso arduratsua denez taldea antolatzeke gaitasuna du, horrek lagunduko digu liskarrak sahiesteko eta taldea primeran funtzionatzeko.



Azkenik, Maialenek enpresaren administrazioan trebetasun handia du. Gainera, tratuak egiteko bikaina da eta horrek erraztuko digu beste enprekin kontaktuak izatea. Era berean, diru sarrerak administratzeko oso ona da baita.



> Finantza-baliabideak:



Hasiera batean enpresa aurrera eramateko ez dugunez diru nahikorik izango, gure aurrezkiak erabiliko ditugu, eta ez denez nahikoa izango, FFF-ren bidez (friends, family and fools), diseinuentzako beharrezko oihalak erosteak dakartzan gastu guztiak ordainduko ditugu.